

Herriko hainbat jardundegietara 50 bisita egingo dira datozen asteetan 'Euskaraz barra-barra' marka herriko merkataritzan eta ostalaritzan zabaltzen jarraitzeko

- Bezeroari arreta bere hizkuntzan eskaintzea zerbitzuaren kalitatea bermatzeko ezinbesteko oinarria da. Gainera, marka eskuratzen duten establezimenduak Euskal Herri osoko e//ren mapan agertuko dira.
- Marka izateak, aurrerantzean, dirulaguntza publikoak eskuratzeko erraztasunak eskainiko ditu.

Andoainen, 24-05-20.- Euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan areagotzeko helburuarekin, batean eta bestean badira euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren saltokiak, enpresak eta entitateak identifikatzen dituzten ziurtagiriak, bezeroek eta herritar guztiek jakin dezaten bertan euskaraz egin ahal izango dutela.

Pasa den urtean, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak gaitasuna identifikatzen eta aitortzen duen marka bateratua sortu zuten: **Euskaraz barra-barra (e//)** du izena, eta euskararen lurralde guztietara zabaldu dute.

Marka bateratu horren helburua da bezero euskaldunei adieraztea euskaraz egiteko aukera dutela leku edo entitate horretan, **Euskaraz barra-barra** marka duten gunetan bermatuta egongo delako euskaraz ulertuko duen langileren bat izango dela beti.

Andoainen, duela ia bi urte hasi ginen herriko establezimenduekin lanketa egiten, eta gaur-gaurkoz, dagoeneko, 62 establezimenduk egin dute bat markarekin.

Datozen asteetan, beste 50 bisita inguru egingo ditugu Andoaingo establezimenduetan, gure udalerrian marka ahalik eta gehien zabaldu ahal izateko.

Marka Eusko Jaurlaritzak kudeatuko duen arren, Andoainen, Udalaren Euskara Zerbitzuak egingo du lanketa, zalantzak argitzeko eta ekimenaren nondik norakoak zehazteko.

Andoaingo establezimenduren batek marka eskuratu edo informazio gehiago nahiko balu, Euskara Zerbitzuarekin jarri behar du harremanetan: 943 300 831 edo euskarazerbitzua@andoain.eus.

Zerbitzuaren kalitatea bada bezero bakoitzari nahi duen hizkuntzaz artatzea eta, gainera, herritarrek aukera izango dute jakiteko zein establezimendu ari diren parte hartzen ekimenean Eusko Jaurlaritzak sorturiko e//ren mapan kontsultatuta. Gainera, e// marka duten jardundegiek dirulaguntza publikoak eskuratzeko erraztasunak izango dituzte.

Beraz, herriko merkataria, ostalari eta zerbitzuetako langileei dei egiten diegu ekimen honetan parte hartzera eta bezeroei dagokien arreta egokiena ematen segitzera.